


EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen heren batek egunero edo ia egunero entzuten du irratia

Irratia entzuten duten gazte gehienek entretenitzeko entzuten dute eta horretarako musika saioak aukeratzen dituzte batez ere

EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen heren batek (% 33) egunero edo ia egunero entzuten du irratia. Ehuneko hori 30 urte eta gehiagoko biztanlerian emandakoa (% 51) baino txikiagoa da.



Gazteek musika saioak entzuten dituzten gehien: hori diote irratia, noizean behin bada ere, entzuten duten gazteen % 87k; beste % 33k batez ere albistegiak entzuten dituzte eta % 27k kirol saioak.

Musika eta kirol saioen kontsumoa askoz zabalduago dago gazteen artean, 29 urtetik gorakoen artean baino; gazteek, aldiz, nagusiek baino gutxiago entzuten dituzte albistegiak.

Kontsumitzen dena kontsumitzearen arrazoiarekin lotuta dago. Irratia entzuten duten gazteek entretenitzeko entzuten dute, nagusiki; aktualitateko albisteez informatuta egotea edo lagunduta sentitzea ez dira beraien lehentasunak. Azken bi arrazoi horiek 30 urtetik gora aipatzen dira gehiago.

Datu hauek [Gazteen Argazkiak:15: Hedabideak](#) izeneko txostenatik atera dira. Txosten hori Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariitzako [Prospekzio Soziologikoen Kabineteak](#) burutu zuen [Gazteen Euskal Behatoki](#) rako.

Txosten horretan 2011ko urrian EAEko 15 eta 29 urte bitarteko 1272 gazteri egindako inkesta baten emaitzak aztertzen dira. Era berean gazteen erantzunak 29 urtetik gorakoek emandakoekin alderatzen dira txostenean.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

